



GIPUZKOAKO
SASKIBALOI
FEDERAZIOA



FEDERACIÓN
GUIPUZCOANA
DE BALONCESTO

SASKIBALOIRA ITZULTZEKO PROTOKOLOA

Itzulera segurua Euskadiko saskibaloia-jokalekuetara

(2020ko irailaren 28an Batzar Nagusiagatik onartua)

EUSKADIN SASKIBALOIRA ITZULTZEKO PROTOKOLOA

HELBURUA:

Kirol-jardueretara itzultzean, beharrezkoa da zenbait neurri eta gomendio ezartzea, Sars-Cov-2 birusa kutsatzeko arriskua ahal den neurrian murrizteko entrenamenduen, joan-etorrien eta saskibaloi-lehiaketan alorrean.

Harreman fisiko handiko kirola denez, protokolo bat ezartzeari eta hura betetzeko praktika egokiei esker entrenamenduak eta lehiaketak seguruago garatu ahal izango dira. Hala, bada, protokolo honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan saskibaloiko kirol-jarduera garatzeko prebentzio-neurriak eta berariazko jarduerak ezartzea, eta kirol-ingurune segurua lortzea.

Protokolo honetako gomendioen bidez, areagotu egin nahi dira erakunde ofizialek eta osasun-agintariek entrenamenduetara itzultzeari buruz hartutako neurriak, baita kirol-zentroei dagozkien araudiak ere, betiere zentro horiek ezarritako jarraibideen arabera. Protokolo hori aldatu egin daiteke deskonfinamenduko faseen bilakaeraren arabera, osasun-jarraibideei jarraituz.

LURRALDE-EREMUA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Protokolo hau Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatuko da, Saskibaloiko Lurralde Federazioek eta Euskal Saskibaloi Federazioak antolatutako lehiaketa eta entrenamenduetan, eta honako hauei aplikatuko zaie:

- Jokalariak, entrenatzaileak, laguntzaileak, arbitraje-kidegoa, taldeko eta landako ordezkariak.
- Gurasoak eta senideak (adingabeek entrenamendu eta lehiaketetan dituzten betebeharren eta erantzukizunen arduradun gisa).
- Kirol-klubak eta -erakundeak
- Lehiaketetara joandako jendea.

PREBENTZIOKO GOMENDIO OROKORRAK

Sars-CoV-2 koronabirusa ez kutsatzeko funtsezko lehenengo hesia prebentzio-neurri orokorrak dira, eta teknikariek, prestatzaileek, kirolariek eta, oro har, ikusleek ezagutu behar dituzte neurri

horiek. Kutsatzeko arriskua ahalik eta gehien murrizteko, guztion ***erantzukizun pertsonala*** da hau betetzea, kirol-eremuan ez ezik, baita norbere familia eta gizarte-eremuan ere, kirolariena, teknikariena, arbitroena, mahaiko laguntzaileena, delegatuena, klubetako eta kirol-erakundeetako kideena.

- 1. PERTSONEN ARTEKO DISTANTZIA FISIKOA.** Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak 2020ko ekainaren 18an emandako prebentzio-neurriei buruzko Aginduaren Eranskineko 1.2 puntuan emandako xedapenen arabera, ***“pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-distantzia, gutxienez, uzteko neurria bete beharko da, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrien ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuak ezarri duena, edo, bestela, babes fisikorako neurri alternatiboak, higiene-maskara egokiak eta arnas etiketa erabili beharko dira”***.
- 2. ESKUEN HIGIENEA.** Langile, teknikari, kirolari eta, oro har, jendearentzat eskuragarri dauden ur eta xaboidun konketak ziurtatuko dira, airezko edo paperezko esku-lehorgailuak erabiliko dira eta, ahal den neurrian, estalkia eta pedala duten zabor-ontziak. Soluzio hidroalkoholikoak jarriko dira hainbat tokitan, erabilera errazteko, kolektibo, egoera eta une desberdinak kontuan hartuta.
- 3. MASKARAREN ERABILERA.** Zentroko langile teknikoek eta lan-kontratuko langile guztiek eta kirolariek nahitaez bete behar dituzte maskararen erabilerari buruzko gomendio ofizialak (nahitaez erabili beharrekoa, pertsonen artean 1,5 m-ko distantzia fisiko ziurtatzerik ez badago), ***jarduera fisiko egiten denean izan ezik***. Kasu horretan, ***teknikarientzat eta laguntzako langileentzat soilik izango da derrigorrezkoa***. Maskara erabiltzeko eskatuko da ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.
- 4. KONTAKTU FISIKOA SAIHESTU.** Agurtzean, sariak banatzean, besarkadak, eskuekin talka egitea, etab.
- 5. ARNAS HIGIENEA.** Ez ukitu aurpegia eta begiak. Doministiku egitean edo ez tul egitean, maskararik ez badugu, garrantzitsua da erabili eta botatzeko zapiak erabiltzea ahoa eta sudurra estaltzeko, edo, bestela, ahoa ukondoaren barnealdearekin estaltzea, edo paperezko mukizapiak erabiltzea eta gero edukiontzi egokian botatzea, eta eskuak berehala garbitzea.
- 6. SINTOMAK ZEIN DIREN JAKIN:**
 - ▶ Sukarra. 37,2 °C baino gehiagoko temperatura (termometro infragorriarekin hartuta)

- ▶ Eztul lehorra. Eztarriko mina edo hazkura.
- ▶ Arnasa hartzeko zailtasuna. Estutasuna bularrean.
- ▶ Orban ubelak oin edota eskuetan.
- ▶ Azaleko eritema edo urtikaria.
- ▶ Beherakoa edota oka.
- ▶ Muskulu edo artikulazioetako mina.
- ▶ Zefalea (buruko mina).
- ▶ Dastamena edota usaimena galdu.
- ▶ Zorabioa, nahasmendua.

7. **GARBIKETA, DESINFEKZIOA ETA AIREZTAPENA.** Handitu maiztasuna eta intentsitatea.

8. **KONTAKTUEN KOPURUA MURRIZTEA.** Mugatu taldeko jardueretan parte hartzen dutenen kopurua. Ahal den neurrian, saiatu jarduerak talde txikiagoetan egiten, talde egonkorrak mantenduz eta elkarrengandik fisikoki urrunduz.

SASKIBALOIAN ARITZEKO BERARIAZKO PROTOKOLOA (ENTRENAMEND UAK, PARTIDAK)

Garrantzitsua. Beharrezkoa eta ezinbestekoa da osasun-segurtasunaren arduradun bat izendatzea klub bakoitzeko, eta oso gomendagarria da dagokion federazioak pertsona horien izenen, telefonoen eta helbide elektronikoak zerrenda bat izatea, gaixotasunaren agerraldiren bat egonez gero egin beharrezkoa egiteko. Arduradun horrek kirolarien, prestatzaileen, epaileen, mahaiko ofizialen eta abarren instalazioetarako sarbidea kontrolatzeko aukera izan beharko luke, eta erregistro bat izan beharko luke, covidaren agerraldiren bat egonez gero bertaratutakoen arrastoari jarraitzeko.

* Klubeko COVID-19 arduradunaren dokumentua Gipuzkoako Saskibalo Federazioari bidaltzea.

Entrenamenduen aurretik kontuan izatekoak. Klubek talde txikitan banatu beharko lituzkete kirolariak, eta beti berdinak mantendu pertsona tekniko bakar batekin, ordutegien koadrante

bat egin eta haien kontrola eraman, entrenamenduetan pixkanaka normaltasunera iritsi arte. Lehenengo etapetan, ahalik eta kontaktu pertsonal txikiena izatea bilatuko da, eta hasierako entrenamenduak intentsitate txikikoak izango dira. FIBAren gomendioen arabera, komenigarria litzateke taldeek lehiaketak hasi baino lehen 5-6 astez entrenatu ahal izatea.

Denboraldi luze baten ondoren jarduera fisikora itzultzea, aurretiko lesioak, konfinamenduan pisua irabazi izana eta muskulu-masa galdu izana lesioak izateko arrisku-faktoreak dira; beraz, kirolarien baldintza fisikoetara egokitutako entrenamendu progresiboak egin behar dira; halaber, gomendagarria da aldeztu aurretik galdeketa epidemiologiko bat egitea.

SASKIBALOIAN SEGURU ARITZEKO URRATSAK

1. Kirol-jarduera egingo den tokira joan aurretik gorputz-tenperatura hartu eta sintomak ebaluatu (kirolariek, prestatzaileek): COVIDarekin bateragarriak diren sintomak izanez gero (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...), hobe da etxean geratzea eta osasun-zentroarekin harremanetan jartzea, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gomendioei jarraiki.
2. Joan-etorrietan, ahal den neurrian, familiakoa ez den inor ez da sartuko ibilgailuan. Hala ez bada, ibilgailuan doazen guztiek maskara eraman beharko dute.
3. Instalaziora iritsitakoan. Jokalariak prestatzaileekin eta langile teknikoekin bakarrik sartu beharko dira; eta jokalariek, entrenatzaileek eta teknikariek, goian esan bezala, segurtasun-distantzia gorde, eta maskarak erabili beharko dituzte. Entrenamenduak atea itxita egingo dira, publikorik gabe, gurasorik edo bestelako laguntzailerik gabe.
4. INSTALAZIOA. Agintari eskudunek horiek kudeatzeko ezarritako jarraibideak bete beharko dira. **Gutxienez**, ondoko baldintza hauek **bete beharko dira**:
 - a. Agintari eskudunen aginduek eta dekretuek une bakoitzean adierazten dutenari lotu eta bete instalazioen edukierak (% 60, gehienez, normaltasun berrian).
 - b. Instalazioan ikusteko moduko tokietan jarri kartelak, koronabirusaren kontrako higie- eta babes-neurriak bete behar dituztela jakinarazteko eta gogorarazteko erabiltzaileei.
 - c. Sarrera- eta irteera-zirkuituak ezarri, itxaroteko guneak mugatuz.
 - d. Konketak xaboiarekin eta eskuak lehortzekoa (papera edo airea) eta gel hidroalkoholikoa eduki, eskuak garbitzeko.

- e. Ez utzi sartzen Covid-19arekin bateragarriak diren sintomak edo arnas gaixotasun akuturen bat dutenei.
 - f. Pertsonen artean gutxienez 1,5 metroko distantzia fisikoa bermatu behar da; horretarako, lurrean markak jar daitezke, langileak egon daitezke distantzia errespetatzeko esanaz, bertara sartzeko kontrola jar daiteke eta maskarak erabiltzeko esan.
 - g. Kirola egiten den espazioaren aireztapen egokia (naturala edo mekanikoa) bermatu behar da, jarduera egin bitartean eta jarduera baten eta hurrengoaren artean, kanpoko baldintza klimatologikoak edozein direla ere.
 - h. Instalazioen garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak bermatu behar dira entrenamendu baten eta bestearen artean, baita partidaren artean ere; pista garbitu eta desinfektatu beharko da eta ofizialen mahaia, aulkiak, markagailuak eta ukitzeko moduko beste materialak ere bai (lixiba eta ura erabili daitezke, 1:50 proportzioan, eta erabili baino lehentxeago prestatuko da soluzio hori [Osasun Ministerioak](#) zerrendatutako biruziden bat ere erabili daiteke). Horretarako, jarduera bat eta hurrengoaren artean denbora tarte bat beharko da. Kontuan hartuko da Osasun sailburuaren 2020ko apirilaren 2ko AGINDUA, SARS-CoV-2 (Covid-19) gaitzak eragindako pandemiaren ondorioz azalerak garbitu eta desinfektatzeko neurriak eta bestelako higiene-neurriak hartzen dituen, eta haren jarraibide teknikoak. <https://cutt.us/RozMO>
 - i. Komun eta aldagelen garbiketa eta desinfekzio iraunkorra indartu eta areagotu.
 - j. Ahal dela pedal-paperontziak izan.
 - k. Edukiera txikiko aldageletan pertsonen arteko gutxienezko distantzia (1,5 metro) bermatzeko, pertsona bakoitzak okupa dezakeen espazioa adierazi beharko da, eta dutxetan ere bai. Dutzak banakoak ez badira, txandakatu egingo dira (bat bai eta bat ez).
5. Kirolariak, prestatzaileak, epaileak... pistara sartzeko kalekoak ez diren oinetakoak jantzi beharko dituzte eta kaleko oinetakoak banako poltsetan sartuko dituzte.
 6. Lehen etapetan, edo aldagelak egokituta ez badaude, kirolariak aldatuta joango dira instalazioetarako etxetik, eta itzultzen direnean dutxatuko dira. Kirolarien, prestatzaileen eta epaileen motxilak uzteko leku bat egokituko da eta elkar ukitzea saihestuko da.
 7. Kirola egiten den bitartean (entrenamenduak eta partidak), prestatzaileak segurtasun-tartea gorde beharko dute eta maskarak erabili.
 8. Toallak, petoak eta bakarka erabiltzeko bestelako materialak ere ezingo dira partekatu. Entrenatzen edo jolasten hasi aurretik, atsedenealdian eta amaitzean, jokalariek eta epaileak

eskuak desinfektatu beharko dituzte.

9. Aulkietan, jokalaria bakoitzak bere lekua izan behar du, eta kaxa edo edukiontzi bat eduki behar du, maskara eta berotzeko kamiseta uzteko, landara ateratzean. Aulkira itzuli ondoren, eskuak desinfektatu beharko ditu maskara jarri aurretik.
10. Partidak hasi eta bukatzean, taldeek elkar agurtuko dute, baina eskua ematea saihestuko dute.
11. Talde bereko jokalariek elkarri bostekoa ematea saihestuko dute.
12. Talde bakoitzak hiru baloi izango ditu, jokatzeko baloiaz gain. Baloiak desinfektatu egin beharko dira partiden aurretik, atsedendian eta hurrengo jarduera hasi aurretik.
13. Mahaiko ofizialek maskarak erabili beharko dituzte eta eskuak gel hidroalkoholikoarekin desinfektatu partiden aurretik eta amaitutakoan.
14. Partida edo entrenamendua bukatutakoan, pista berehala utzi beharko da libre, hurrengo jarduera baino lehen pista eta materialak desinfektatzeko.
15. Instalazioetatik ateratzean, pertsonen arteko distantzia fisikoa gorde beharko da, eta maskarak erabili eta oinetakoak aldatu beharko dira.

ZER EGIN COVID-19AREN KASU POSITIBOAK AGERTUZ GERO

1. COVID-19 gaixotasunarekin (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...) bateragarria den sintomatologia agertzen bada kirol-jarduera egiten ez den une batean, pertsonak autoisolamendua egin behar dute etxean, eta telefonoz eta atzerapenik gabe jarri behar dute harremanetan ohiko osasun-zentroarekin, baita klubeko arduradunari jakinarazi ere. Kirolariren batek edo talde teknikoko norbaitek jakin badu berak COVID-19 gaixotasuna duela edo gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak dituela, edo berretsitako kasu baten kontaktu estua dela, berehala jakinaraziko dio klubeko arduradunari; horrek



Federazioari eta osasun-arloko agintariei jakinaraziko die, lehiaketa egiten den autonomia- erkidegoan ezarritako bitartekoen bidez, eta betiere haien oharrei jarraituz.

2. COVID-19aren zantzuak dituzten kasuak agertzean, jarduteko prozedura bat beteko da, isolamendua eta osasun-zerbitzuekiko komunikazioa barne hartuko dituen, eta, hala badagokio, prebentzio-zerbitzuekiko komunikazioa ere bai.



GIPUZKOAN SASKIBALOAIA PRAKTIKATZERA ITZULTZEKO PROTOKOLOAREN ERANSKINA

2020ko irailaren 15eko eranskin hau erantsi zaio Euskadin saskibaloia praktikatzera itzultzeko Protokoloari, hori argitzeko eta osatzeko xedez, federazio honek antolatutako lehiaketetako partidak gara daitezen:

1. Protokolo honetan lehendik jasotako neurri guztiez gain, ondorengo hauek ere bete beharko dira.
2. Partida jokatu baino 48 ordu lehenago, talde bisitariko COVID protokolo-arduradunak harremanetan jarri behar du etxeko taldeko COVID protokolo-arduradunarekin, ondorengo alderdi hauek argitzeko:
 - a) Talde bisitaria iristeko ordua (partida baino 45-60 minutu lehenago edo bi taldeen arteko akordioan), bi taldeetako kirolarien eta teknikarien sarrerak era mailakatuan egin daitezten. COVID-19 arduradunak ezin badu topaketara joan, bisitari-taldeak espedizio-arduradun bat izendatuko du, taldekideak eta laguntzaileak koordinatzeko, beharrezkoa izatekotan.
 - b) Etxeko taldeak jakinarazi egin beharko du partida atek itxita edo ikusleekin izango den. Bigarren kasuan, talde bisitariarentzako edukieraren % 30 (**gutxienez 4 pertsona**) gorde beharko du klubak. Instalazio bakoitzerako baimendutako edukiera osoa partida jokatzeko unean indarrean dauden arauen eta instalazio bakoitzaren betekizun espezifikoaren arabera izango da; baldintza horiek ez dira inoiz administrazio-organo eskudunak aginduak baino murrizketa txikiagokoak izango. Klub bisitariaren erantzukizuna da partidan izango diren pertsonen datuak edukitzea, bai parte-hartzaileenak (kirolariak, teknikariak eta zuzendaritzako kideak), bai ikusleenak: izen-abizenak, NAN, harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa; aldiz, etxeko klubaren erantzukizuna izango da haren zaleen datuak jasotzea, talde bisitariaren baldintza berberetan, bai eta arbitro-taldearenak, mahaiko laguntzaileenak eta ekitaldian parte hartuko duen eta instalazioaren barruan kokatuko den beste edozein bertako pertsonarena ere. Gainera, partida jokatu eta hurrengo 15 egunetan datu guztiak gorde beharko ditu.

Espazio itxietan kirol-lehiaketak eta ikuskizunak egiteari buruzko Eusko Jaurlaritzaren araudia (Osasun sailburuaren 2020ko abuztuaren 19ko Agindua, 3. puntua, Edukiera mugatzea eta prebentzio-neurri espezifikoak ezartzea sektoreka)

3.17 Lehiaketak, kirol-ekitaldiak eta ikuskizunak, eta jendea bertaratzea:

3.17.1 Antolatzaileek baimena eskatu beharko diete erakunde eskudunei, lehiaketa garatzeko protokolo bat erantsita, higie-ne eta aldentze-neurri guztien jarraipena bermatuko dituen eta osasun-agintari-ek ezarritako beste edozein arau ere jasoko duena.

3.17.2 Kirol lehiaketak, ekitaldiak eta ikuskizunak egin ahal izango dira ikusleekin espazio itxietan, baldin eta baimendutako edukieraren % 60ko edukiera badute gehienez, betiere 600 pertsona baino gutxiagoko muga izanda. Instalazioetan pertsonen arteko segurtasun-tartea zaintzeko beharrezko neurriak ezarri beharko dira, edo, halakorik ezarri ezin denean, babes fisikorako orde-zko neurriak erabili beharko dira. Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia 1,5 metrokoa izan (bizikidetz-unitateen kasuan izan ezik, horiek ondoko eserlekuetan eseri ahal izango baitira); jendeak eserita egon beharko du, aurrez esleitutako eserlekuan.

c) Etxeko taldeak talde bisitariari jakinarazi beharko dio aldagelarik eta dutxarik izango al duen erabilgarri, instalazioaren baldintzen eta indarrean dagoen araudiaren arabera, eta aldagelak erabiltzeko lehentasun-ordena hauxe izango da: lehenik, talde bisitaria, ondoren, arbitro-taldea eta, azkenik, etxeko taldea.

d) Etxeko klubak aldagelak eta dutxak arbitro taldearentzako erabilgarri EZ daudela jakinarazi beharko dio Federazioari, arbitros@gisaski.eus posta elektronikoz, gutxienez partida jokatu baino 24 ordu lehenago. Arau hau ez betetzeak 20 euroko kanona izango du.

3. INSTALAZIOA.

a) Etxeko klubak kontrolatu beharko du ikusleen sarrera eta partida egiteko baimendutako edukiera.

b) Etxeko taldearen COVID protokoloaren arduradunak harrera egin beharko dio talde bisitariari (taldea batera sartu beharko da, elkarren arteko distantzia zainduz), parte-hartzaile guztien, kirolarien, teknikarien eta arbitro-taldearen tenperatura hartu beharko du (jakinaraziz 37,2°C-tik gorako irakurketa izanez gero, pertsona horrek ezingo duela instalazioetara sartu), eta aldageletarako, jokalekurako eta abarretarako sarbideak adierazi beharko dizkio.

c) Etxeko klubak gel hidroalkoholikoa izan beharko du erabilgarri instalazioaren sarreran.



- d) Etxeko klubak gel hidroalkoholikoa izan beharko du bi taldeentzat, bai mahaiko laguntzaileen eta arbitroen mahairako.
- e) Etxeko klubak 7 joko-baloi ofizial izan beharko ditu, hiru talde bakoitzarentzat eta bat jokatzeko, eta partida hasi aurretik desinfektatuta egon beharko dute. Jokatzeko baloia, gainera, desinfektatu beharko da atsedendian ere (arbitroa nagusiaren bitartez), eta etxeko taldearen betebeharra izango da lan horretarako behar den materiala ematea.
- f) Ez da aldaketa aulkirik ezarriko.
- g) Taldeen aulkian guztiek maskara jantzi beharko dute nahitaez, entrenatzaile nagusiak izan ezik, haren eginkizunetan ari den bitartean.
- h) Kirolari bakoitzak banakako poltsa bat eduki beharko du, itxiturearekin, jokatzeko ari den bitartean berotzeko kamiseta, maskara eta beste objektu pertsonal batzuk gordetzeko.
- i) Banakako aulkiak erabiltzea gomendatzen da, ezinezkoa bada, aulki luzeak jartzen saiatu beharko da, jokalarik bakoitzak bere lekua izan dezan, segurtasun-distantziari eusten saiatuz.
- j) Etxeko klubak ez die urik emango ez arbitro-taldeari ez klub bisitariari, norberak bere botila eraman beharko baitu, eta ez hura partekatu. Klub bisitariak txorrotako urez betetzeko leku berezi bat izango du, betiere instalazioan egokitutako aldageletan edo komunetan horretarako aukerarik ez badago.
- k) Partidaren amaieran, bi taldeek euren aulkiak eta dagozkien aldagelak haietan inolako hondakinik gabe (bendak, botilak, zapiak, etab.) utziko dituzte. Etxeko taldeko COVID-19 arduradunak aulkiak, baloiak, mahaia eta osagarriak desinfektatzeaz ziurtatuko da, joko-pistatik irten aurretik.
- l) Etxeko klubeko COVID protokoloaren arduradunak aurreikusi beharko du, halaber, jokalekutik eta talde bakoitzaren instalaziotik txandan irtetea, eta instalaziotik irteten azkena izango da, alde aurretik ziurtatuz inor ez dela instalazio barruan gelditu, ezta bertakorik ere, tokiko langileak izan ezik.



COVID-19-AREN ERAGINEZ PARTIDAK ATZERATZEA

Partidaren aurreko 72 orduetan partidak atzeratzeko arrazoiak izango dira honako hauek:

1. **Talde batean COVID-19aren kasu positibo bat edo gehiago egiaztatuz gero.** Erasandako klubak zinpeko deklarazio bidez jakinarazi beharko du, eta kopia bat bidali beharko dio bere lurralde-federazioari, taldea eta kategoria adierazita, eta, gainera, arakatzaillearen telefono-zenbakia ere eman beharko du
2. **Talde batek COVID-19aren kasu positiboekin harreman estu bat edo gehiago egiaztatuz gero (bizikideak).** Erasandako klubak zinpeko adierazpen bidez jakinarazi beharko die dagozkion federazioei, eta arakatzaillearen telefono-zenbakia ere eman beharko du.

COVID-19aren Detekzio Goiztiarreko, Zaintzako eta Kontroleko Estrategiaren arabera, honako hauek dira harreman estuak:

BIZIKIDETZA HARREMAN ESTUA. Infektatu bat zaindu duen edozein: babes-neurri egokiak erabili ez dituzten osasun-langileak, familiako kideak, senideak edo antzeko kontaktu fisikoa duten pertsonak.

BIZIKIDETZARIK GABEKO HARREMAN ESTUA. Infektatu bat egondako leku berean egon den edozein, 15 minutu baino denbora gehiagoan harengandik 2 metro baino gutxiagora egon dena.

3. **Baldin eta COVID-19aren eraginez instalazio bat ixten bada.** Klubak jakinarazi egin beharko du eta dagozkion federazioei egiaztatu beharko die.

Partida bertan behera uzteko arrazoia izango da justifikatzea talde batek ez dituela gutxienez taldearen lizentzia duten 7 jokalarik, COVID-19k positibo eman duelako edo birusa dela-eta etxean babestu delako.

SARS-CoV-2 Koronabirusa zaintzeko Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren protokoloan adierazitako kontaktu trataeraren arabera, balizko COVID-19 kasu baten BIZIKIDE EZ

GIPUZKOAKO
SASKIBALOI
FEDERAZIOA



FEDERACIÓN
GUIPUZCOANA
DE BALONCESTO

DIREN harremankide estuak identifikatzea eta kontrolatzea infekzio aktibo bidez baieztatutako kasuen irizpideak bete arte atzeratu ahal izango da; beraz, egoera hori gertatuz gero, ez da partidak eteteko arrazoia izango, **baldin eta osasun-agintariek hala adierazten ez badute.**



PCR PROBAK EDO ORDEZKO METODOETAKOAK NAHITAEZ EGIN BEHARRA

ESFak, agerraldiak detektatuz eta bereziki sintomarik gabeko kasuak detektatuz COVID-19a gure federatuen artean hedatzea ahal den neurrian ekiditen laguntzeko, denboraldi honetan nahitaezkoa izango da, ESFk hala eskatzen duenean, federazio-lizentzia duten pertsonen euren borondatez PCR proba edo COVID-19a detektatzeko osasun-agintaritza eskudunek onetsi ahal duen beste ordezkotako edozein metodotako proba egitea; proba horren kostuak ESFak hartuko ditu bere gain.

ESFk idatziz jakinaraziko dio interesdunari PCR proba (edo ordezkotako proba) egiteko beharra, proba egiteko lekua eta ezarritako ordutegia, programatutako data baino gutxienez bi egun lehenago.

Baldin eta proba hori egiten ez badu, behar bezala idatziz justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik (hala izanez gero, data ESFek birprogramatuko dio), federatuak atxikita dagoen lehiaketan parte hartzeko ahalmena galduko du 14 egun naturaleko epean, aurreko paragrafoan aipatutako jakinarazpen egunean zenbatzen hasita. Denbora hori igarotakoan, proba hori egin beharko du, eta orduan probaren kostua bere gain hartu beharko du.. Bigarren aukera horretan egin ezean, ESFk desgaitu egingo du eta federazio-lizentzia eten egingo dio, egindako probaren ziurtagiria aurkezten duen arte.

Baldin eta PCR testa (edo ordezkotako) egiteko ESFk jakinarazitako federatua COVID-19arekin lotuta dokumentu honetan aurreikusitako arrazoiren batengatik partida atzeratzea eskatu duen talde bateko kide bada, federatu horrek behar bezala justifikatutako arrazoi larririk gabe onartuko ez balu, partida hori galdutzat emango litzaioke automatikoki federatu hori kide den taldeari, ondoren errekurtsioa egiteko aukerarik gabe.

* Ez da aurreikusten Gipuzkoako Saskibaloia Federazioaren lehiaketetan egitea.



1. Eranskina. Protokoloa betetzeko adierazpena eta klubeko arduradunaren izendapena.

Kluba: _____

_____ ko Saskibaloia Federazioako Presidente jaun/andreari.

Jaun/Andre agurgarria:

Honen bidez, eta _____ klubeko_ gisa
(egoitza soziala: _ kalea, _ zk., _ ,

ZIURTATZEN DUT

_ jaun/andrea, adin nagusikoa eta_ NAN
zenbakia duena, gure klubak entrenamendu eta lehiaketetara itzultzeko protokoloa betetzearen arduradun izendatu dela. Halaber, Euskal Saskibaloia Federazioak ezarritako osasun- segurtasuneko protokoloa betetzeko, kontaktu datu hauek ezartzen dira:

Izen-abizenak: _

E-maila:

Telefonoa: _

Helbide: _

Nire izenean eta ordezkatzan dudana klubaren izenean, Protokolo horretan ezarritako entrenamendu, ekitaldi eta partidetan COVID-19ren prebentzioari buruz indarrean dauden neurri guztiak betetzearen erantzule egiten naiz, horrela, Euskal Saskibaloia Federazioak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Federazioek antolatutako lehiaketetan parte hartu ahal izateko, eta nik ematen diot izendatutako pertsonari baimena gure kluba ordezkatzeko.

Eta horrela jasota gera dadin, dagozkion ondorioetarako, ediktu hau sinatzen dut, _ (e)

(a) n, 2020ko_ aren_ (e) (a) n.

Sinadura eta klubaren zigilua

Protokoloaren arduradunaren sinadura



2. Eranskina. Protokoloa betetzeari buruzko adierazpena eta arbitroen batzordeko arduraduna izendatzea.

_____ SASKIBALOI FEDERAZIOAREN ARBITROEN BATZORDEA

_____ ko Saskibaloia Federazioko Presidente jaun/andreari.

Jaun/Andre agurgarria:

Honen bidez, eta _____ Saskibaloia Federazioaren Arbitroen Batzordearen

- _____ gisa,

ZIURTATZEN DUT

- _____ jaun/Andrea, adin nagusikoa eta _____ NAN zenbakia duena, gure kolektiboak entrenamendu eta lehiaketetara itzultzeko protokoloa betetzearen arduradun izendatu dela. Halaber, Euskal Saskibaloia Federazioak ezarritako osasun- segurtasuneko protokoloa betetzeko, kontaktu datu hauek ezartzen dira:

Izen-abizenak:

Emaila:

Telefonia:

Helbidea: _

Nire izenean eta ordezkatzan dudak kolektiboaren izenean, protokolo horretan ezarritako entrenamendu, ekitaldi eta partidetan COVID-19aren prebentzioari buruz indarrean dauden neurri guztiak betetzearen erantzule egiten naiz, horrela, Euskal Saskibaloia Federazioak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Federazioek antolatutako lehiaketetan parte hartu ahal izateko. Nik, izendatutako pertsonari gure kolektiboa ordezkari dezan, baimena ematen diot.

Eta horrela jasota gera dadin, dagozkion ondorioetarako, ediktu hau sinatzen dut, _____ (e)

(a) n, 2020ko _____ aren _____ (e) (a) n.

Ordezkariaren sinadura eta Arbitroen Batzordearen ziguila _____ Protokoloaren arduradunaren sinadura



3. Eranskina. Jokalarien erregistro-eredua - Klubak

Agiri hau behin bakarrik bete beharko da denboraldiko lehen entrenamendua baino lehen, eta eguneratu egin beharko da plantilla aldatuz gero. Taldeko arduradunak klubeko Protokoloaren arduradunari eman beharko dio.

KLUBAREN IZENA		TALDEA	
TALDEKO ARDURADUNA		TELEFONOA	

JOKALARIEN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK	NAN	TELEFONOA	HELBIDEA

GORPUTZ TEKNIKOA:

IZEN-ABIZENAK	NAN	TELEFONOA	HELBIDEA

DATA	
------	--



4. **Eranskina.** Dokumentu hau partida bakoitzean bete beharko du talde bakoitzak. Etxeko klubeko Protokolo arduradunak ekitaldiaren ondorengo 15 egunez gutxienez gorde beharko du. Arbitro-taldeak ere bete egin beharko du.

ETXEKO TALDEA:			
KLUBA:			
LEKUA, EGUNA ETA ORDUA:			
IZEN-ABIZENAK			

- Etxeko taldeak zerrendan agertzen diren bere taldeko pertsona guztien NAN, telefono eta helbide elektroniko guztiak eduki behar ditu.

TALDE BISITARIA:			
KLUBA:			
IZEN-ABIZENAK			

- Bisitari-taldeak zerrendan agertzen diren bere taldeko pertsona guztien NAN, telefono eta helbide elektroniko guztiak izan behar ditu.

ARBITROEN TALDEA			
IZEN-ABIZENAK			

- GSFk, behar izanez gero, taldeetako protokolo-arduradunei eskatuko dizkie zerrendan agertzen diren pertsona guztien NANa, telefona eta helbide elektronikoa, eta berehala bidali beharko dizkiote dagokionari.

4. Eranskina. Sintomak ebaluatzeko galdetegia

Dokumentu hau talde bakoitzaren lehen entrenamendua hasi aurretik bete beharko da, eta klubeko protokoloaren arduradunari entregatu beharko zaio.

Izen-abizenak	
NAN	
Emaila	
Telefonoa	

Sintomak baztertzeko galdetegia:

	BAI	EZ
Sukarra (37°C-tik gorako temperatura) azken 5 egunetan		
Eztul lehorra (azken 14 egunetan)		
Eztarriko mina/azkura (azken 14 egunetan)		
Arnasa hartzeko zailtasuna, bularreko zapalkuntza (azken 14 egunak)		
Lesio biolazeoak oinetan eta/edo eskuetan, larruazaleko erupzioak edo urtikaria (azken 14 egunak)		
Giharretako edo artikulazioetako min ezohikoak (azken 14 egunetan)		
Beherakoa eta/edo gorakoak (azken 14 egunetan)		
Buruko min handia (azken 14 egunetan)		
Dastamena eta usaimena galtzea (azken 14 egunetan)		
Harreman estua izan duzu (ikastetxean, lanean, familian edo lagunekin) Covid-19an positiboa eman duen norbaitekin?		
Zure eguneroko ingurune hurbilenean ba al dago kontaktu estua izan duen (15 minutu baino gehiago 2 metro baino gutxiagora) eta duela gutxi arnas sintomekin edo sukarrarekin hasi den norbait?		
Egin al da koronabirus-testik azken 48 orduetan?		
Emitza:	Pos.	Neg.

Galdetegi hau irakurri eta erantzun ondoren, kirolariak/entrenatzaileak honako hau adierazi du:

- Emandako erantzun guztiak egia eta zuzenak dira.
- Jakina da egiaekin bat ez datorren erantzun orok ondorio larriak izan ditzakeela bere osasunean eta ingurukoenean.
- Jardueraren aurretik, bitartean eta ondoren, bere osasun-egoera aldatzen duen edozein gorabeheraren berri emango die bere klubari eta bere Federazioari.

... (e) n, 2020ko_

aren_

(e) (a) n.

Sin.: kirolaria/entrenatzailea

Aita/ama/tutorea (adingabeak badira)



Kirolariak/entrenatzaileak eta bere gurasoek (adingabeak izanez gero) berariaz baimentzen diote klubari datu biometrikoak eskatu, erabili eta tratatu ahal izateko (tenperatura, PCR eta test probak, eztul eta sintomen gaineko aplikazioak, etab.). Horiek COVID19 sintomak garatzen ari ez direla eta gaixotasunaren eramaileak ez direla egiaztatze bako bako ez dira erabiliko, eta horiek lagatzeko eta haiei soilik jakinarazteko aukera izango dute. Berriak prebenitzea Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezartzen dituen parametroekin eta jarraibideekin bat etorritik, hala badagokio, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, ezabatze eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, klubaren egoitza sozialera jakinarazpen bat bidalita, NANaren kopiarekin batera. Kirol-jardura egiten den bitartean gordeko dira datuak, eta osasun-agintariek eskatu ahal izango dituzte.

COVID-19aren kasu positiboek buruzko Zinpeko Adierazpena.

Nik

jn./and.ak, _____ NAN/AIZ/Pasaporte zk.rekin, egoitza

(a)n, _____
Kal./Etor./Pza _____ helbidean _____ duenak, _____ eta

_____ bezala, _____ klubeko

ZINPEAN ADIERAZTEN DUT

_____ taldean, _____ kategorian,
COVID-19an positibo emandako _____ kasu detektatu d(ir)ela, eta, beraz,
eragindako pertsona(k) etxeko isolamenduan eta/edo gaixotasunaren tratamenduan
daudela, Osakidetzaren gomendioei jarraituz, eta dagokion jarraipena egiten ari den
langilearen harremanetarako zenbakia _____ dela.

Eta horrela jasota gera dadin, dagozkion ondorioetarako, adierazpen hau sinatzen dut,
_____ (e)n, 202__ (e)ko _____ aren ____ (e)(a)n.

Izen-abizenak

Klubaren sinadura eta zigilua